

**“EUSKADIKO GAZTEAK LANKIDETZAN”  
PROGRAMAREN EBALUAZIOA (1993-2017)**

**LABURPEN EXEKUTIBOA**

Euskadiko Gazteak Lankidetzan (EGL) nazioarteko boluntarioritza-programa bat da, Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzak eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak (GLEAK) bultzatutakoa. 1993. urtetik, Euskal Autonomia Erkidegoko gazteak bidali ditu Hegoaldeko herrialdeetako garapenerako lankidetzaproiektuetara, elkartasunaren kultura sustatu eta EAeko gazteria garapenerako lankidetzaproiektuetan sentsibilizatzeko. 25 urte honetako programa askotariko eragileen lankidetzaz egin ahal izan da eta, hari esker, Euskadiko 2.120 gaztek beste errealitate batzuk ezagutu ahal izan dituzte.

EGLk ekarpen handia egin die esperientzia bizi izan duten gazteei, eta onarpen handia du parte hartu duten pertsonen zein eragileen artean; gainera, ahalmen handia du kulturartekotasun eta gizarteko parte-hartzeari zein inplikazioari buruz.

## 1. HELBURUAK ETA METODOLOGIA

Ebaluazioaren helburuak ondorengoak izan dira:

Helburu nagusia. EGL programak gazte parte-hartzaileen kultura arteko sentsibilizazioa eta gizarte-inplikazioa sustatzen nola lagundu duen aztertu.

1. Helburu berezia. Ekintzarako inplikatzearen aldetik, baita kultura arteko gaitasunaren aldetik ere, programak egiten duen ekarpena ezagutu.

2. Helburu berezia. Gazteen eta erakunde parte-hartzaileen kultura arteko parte-hartzea eta sentsibilizazioa erraztu edo zaildu egiten duenari buruz ikasi.

3. Helburu berezia. Kultura arteko ikuspegia programan orokortzeko balio duten elementuak identifikatu, gero eta kultura artekoagoa eta parte-hartze eta gizarte-inplikazio handiagokoa den gizarte-errealitate bati ekimen hau egokitzeko balio duten jarraibideak eskainiz.

Halaber, ebaluazioak informazioa biltzeko teknika kuantitatiboak zein kualitatiboak baliatu ditu, ondorengoak:

- Hasierako elkarrizketak egin eta dokumentazioa aztertu: 6 elkarrizketa egin zaizkie administrazio bultzatzaileetako teknikariei eta politikariei, eta programako Hautaketa Batzordeko parte-hartzaileei. Hasierako fase honetan, parte hartzen duten pertsona gazteen eta Euskadiko zein tokiko erakundearen profila ezagutzeko asmoz, programaren bilakaeraren 25 urteko programako deialdi-aginduak eta datu-baseak aztertu ditugu.
- Bi galdetegi bidali, bata gazte parte-hartzaileentzat (210 erantzun jaso ditugu), eta beste bat EAeko Garapenerako GKEentzat (22 erantzun).
- 54 elkarrizketa egin (40 gazteei, 9 tokiko Garapenerako GKEei, eta 5 EAeko GKEei) eta 3 eztabaida-talde sortu: bi gazte parte-hartzaileentzat eta bat programaren Hautaketa Batzordearentzat.
- Bukatzeko, ebaluazioari buruzko gogoeta, eztabaida eta konklusioetarako kontraste-talde bat osatu dugu erakunde sustatzaileekin, baita kultura arteko hezkuntzaren eta parte-hartzearen arloko pertsonekin ere.

## 2. KONKLUSIO NAGUSIAK ETA GOMENDIOAK

### 2.1 EGL programaren lorpenak

Ondoren, programaren lorpen nagusiak aurkeztuko ditugu:

- EGLk parte hartzen duten gazteak sentibilizatzearen helburua betetzen du: zalantza izpirik gabe, hobekien baloratutako elementuetako bat parte hartzen duten gazteen sentibilizazioari dagokionez programak egiten duen ekarpena da; izan ere, neskei zein mutileri aldaketak ekarri dizkie alde pertsonaletik zein jendartearen aldetik. Alde pertsonaletik, gehiengo handiak dio esperientzia mugarri bat izan dela bere bizitzan; esker oneko agertzen dira emandako aukerarekin eta, batzuetan, adierazi dute programarekin “zorretan” direla. Jendartearen aldetik, sentitzen dute errealitatearen ikuspegi pixka bat kritikoagoa dutela, eta gehiago jabetzen dira gizarte-aldaketa bultzatzeko parte hartzeak duen garrantziaz.
- Halaber, oso ontzat jo da 5 eragileren inguruan ehundutako lana: bi erakunde publiko bultzatzaileak (Gazteria Zuzendaritza eta GLEA), EAEko Garapenerako GKEak, tokiko Garapenerako GKEak eta gazteak. Ondo baloratu da ere bai zehaztutako 8 faseko egitura: tokiko Garapenerako GKEek eskatutako profilarik jasotzea, atariko hautaketa, orientazioa eta akonpainamendua, EAEko Garapenerako GKEek emandako prestakuntza, garapenerako lankidetzaproiektuetan esperientzia garatzea, ebaluazioa eta EAEko jendarte-inplikazioa.
- Oro har, tokiko Garapenerako GKEak pozik daude parte hartu duten gazteen profilararekin. Garapenerako GKEek eta tokiko komunitateek ez dute espero hiru hilabeteko egonaldian eta erantzukizunaren aldetik erabakigarria izango den pertsona gazte bat etorriko zaienik. Aldiz, jabetzen dira EGL programaren helburua gazteak sentibilizatzeari dela, tokiko problematikak ezagutzera ematea, kultura arteko elkarrizketa sustatzea eta esleitutako proiektuari laguntza ematea.
- Parte hartzen duten gazteek ondo baloratu ohi dute komunitateari egin dioten ekarpena eta tokiko GKEekin lotutako harremana. Jomugako herrialdera heldutakoan parte-hartzea errazten duten zirkunstantzietan dagokienez, gazteek giza loturak aipatzen dituzte batez ere: tokiko gizartearekiko harremana, adiskidetasun lokarriak, eta tokiko Garapenerako GKEarekin izandako harreman ona. Euskadiko Garapenerako GKEak ere bat datoz iritzi horretan.
- Kultura arteko gaitasunei dagokienez, tokiko Garapenerako GKEek azaldu dutenez, gazteak joateak balio izan du Mendebaldeari buruz tokiko komunitatean zeuden aurreiritziak auzitan jarri eta amaitzeko. Genero-ikuspegitik, gainera, gizonezko zein emakumezko boluntarioek, tokira etorritik, estereotipoak eta genero-rolak hausten lagundu dute, gizartean ezarritako emakumezko kotasun eta gizonezko kotasunarekin bat ez datozen zereginetan eta roletan aritu diren neurrian.

## 2.2. EGL programaren hobekuntzarako elementuak eta gomendioak

Ondoren, programan, oro har, hobetu daitezkeen elementu nagusiak aurkeztuko ditugu; ebaluazioan ateratzen joan diren alderdiak dira, eta uste dugu interesgarriak direla programa berraztertzeke orduan kontuan hartzeko.

- Gazteen zein EAEko eta tokiko Garapenerako GKE parte-hartzaileen profila prestatzeko aztertu den programaren 25 urteko datu-basea ez da nahikoa izan. Gainera, ez du aukerarik eman informazioa irizpide bateratuekin biltzeko.

**GOMENDIOA:** gazteen zein erakunde parte-hartzaileen datu-bilketa eta -azterketa hobetzea, tartean datuak bateratuta biltzeko irizpideak sartuz eta beste berri batzuk ezarriz, genero-aldetik informazioa argitu dezaten eta parte-hartzeari zein kulturartekotasunari begira.

- Hala ere, aipatu den bezala, 5 eragileren artean ehundutako lana oso ondo baloratu da.

**GOMENDIOA:** EAEko Garapenerako GKEen, tokiko Garapenerako GKEen eta administrazio bultzatzaileen artean lankidetzak handiagoa bultzatzea, programaren kudeaketan erantzunkidetasun handiagoa bultzatzeko.

- Programara eragile eta heziketa-, gizarte- zein ekonomia- eta identitate-profil desberdinetako gazte gehiago erakartzeko nahia detektatu da.

**GOMENDIOA:** EAEn eta euskal lankidetzak presentzia duen herrialdeetan programari ikusgaitasun gehiago izateko aukera emango dion komunikazio- eta zabalkunde-plan bat prestatzea, tokiko erakunde gehiagok bat egin dezaten.

- Ebaluazio-prozesuan behatu ahal izan den gaitako bat da parte hartu duten gazteak zein EAEko Garapenerako GKEak profil jakin bati lotzen zaizkiola: gazteen artean, nabarmendu behar da emakumeak direla parte-hartzaile gehienak eta, denboraren joanean, gero eta gehiago handitu dela haien parte-hartzea. Ikasketa-profil nagusia unibertsitatekoa da (Gizarte eta Lege Zientziak), eta jomuga nagusiak, berriz, Hegoaldeko herrialdeak dira (% 72tan). Euskadiko Garapenerako GKEei dagokienez, behatu denez, 25 urte honetan parte hartu duten 90 erakunde baino gehiagoetatik, 13k kudeatu dute gazteen % 51ren bidalketa. Erakunde horiek bultzatzen dituzten garapenerako lankidetzak-proiektuak hezkuntza-garapenerako, arriskupeko gizataldeak (% 19,6) eta komunitate-garapen eta gaikuntzarakoak dira (% 17).

**GOMENDIOA:** erakunde aliatuak identifikatzea, bakarrik garapenerako lankidetzakoak ez diren erakunde pribatuen zein publikoen lankidetzak handiagoa bilatuz: etorkinen aldeko elkarteak eta elkartasun-sareak (feministak, herri-hezkuntza, etab.), gazteen eta erakunde parte-hartzaileen dibertsitate handiagoa sustatzearen.

- Bestalde, nabarmendu behar diren auzi batzuk identifikatu dira esperientziaren aurreko prestakuntza-prozesuei buruz. Informazio eta Orientazio Jardunaldiei dagokienez, identifikatutako hobekuntzarako elementuak metodologiari lotutako gaiak dira, talde txikitik lan egiteko beharra uzten baitute agerian: tokiko esperientzia egokia izan dadin, ezin bestekotzat jotzen da gaitasun pertsonalen garapena bultzatzea. EAEko Garapenerako GKEek bultzatutako prestakuntzei buruz, behatu ahal izan da tresnak zuzkitu behar zaizkiela hartutako konpromisoa behar bezala bete ahal dezaten. Bereziki aipatu izan dira proiektuen eta haien gain hartu beharko dituzten zereginen berri gazteei jakinaraziko dien topaketak edo/eta bilkurak, nahiz eta informazio hori batzuetan osatu eta eguneratu gabea izan den. Ondorioz, horrek gazteek eta EAEko Garapenerako GKEek izandako harremanaren kalitatean eta

berotasunean eragina izan du: hori da programan auzitan gehien jarritako elementuetako bat.

**GOMENDIOA:** parte hartzen duten EAEko Garapenerako GKEei programan oinarrituta haien gain hartu behar dituzten zereginak argi eta garbi zeintzuk diren identifikatzen lagunduko dieten dokumentuak ondu eta zabaltzea; horietan, esperientziaren aurreko prestakuntza-prozesuak ezartzen lagunduko duten jarraibide didaktiko eta metodologikoak bilduko dira.

## **Kultura arteko gaitasunei eta parte-hartzeari buruzko hobekuntzarako elementuak eta gomendioak**

Bukatzeko, kultura arteko gaitasunak garatzeko hobekuntza bereziei eta programatik inplikazio handiagoa sortzeari lotutako gomendio nagusiak aurkeztuko ditugu.

- Nazioarteko boluntariora-esperientzian, agerian geratu da gazteen gatazka nagusiak, batetik, bizikidetzan gertatu direla, gazteak taldean edo alojamendua partekatzen duten beste pertsona boluntarioekin doazenean, eta, bestetik, Europara bildutako eta “mundua konpondu nahi izatearen” jarrerek eraginda. Gainera, zereginen, denboren eta komunikazioaren antolamendu eta koordinazioari buruzko ikuskera desberdinek piztutako gatazkak nabarmendu dira, gazteen eta tokiko erakundeen artean sor daitezkeen aurreikuspen desberdinei buruzko gain.

**GOMENDIOA:** gatazkak konpontzeko ekintza-protokolo bat prestatzea, parte-hartzaileei, EAEko Garapenerako GKEei eta tokiko Garapenerako GKEei zuzenduta, arazo ohikoenei (bizikidetzan edo pertsona gazteen jarrerak) eta esperientzian sor daitezkeen beste larriago batzuei aurre egin eta irtenbidea emateko.

- EGLk eskaintzen duen nazioarteko boluntarioen esperientziaren ondoren, nabarmendu behar da gazte askok nahasmen, bakardade eta bizitakoa bideratzeko premiaren sentimendua jendarteratzen dutela. Sentimendu horiek oso sarri gertatzen dira itzuli ondorengo aldirian, eta ohartzen gara esperientziaren ondoren gertatzen bide dela kultura-talka indar bizienaz, une horretan hartzen baitute gazteek beren Mendebaldeko bizi estiloaren kontzientzia: natur baliabideen xahuketa, kontsumismoa, indibidualismoa, giza loturen falta, etab. Aipatu dugunaren haritik, ebaluazio-jardunaldiak beharrezkotzat jotzen dira etapa ixteko, baita garrantzitsutzat ere, bizitakoa beste gazte batzuekin jendarteratzeko eta topaketarako, baina hobekuntzarako alderdi asko identifikatu dira: aprobetxatu beharko lirateke esperientziak bultzatu duen kultura arteko mailan izandako aldaketak identifikatzeko eta, parte-hartzeari dagokionez, bizitakoa beste norabait bideratzen laguntzeko.

**GOMENDIOA:** ebaluazio-jardunaldietan oinarrituta ezartzea.

- Parte hartzen duten gazteen geroko parte-hartze mailak jaisten direla identifikatu da, bai EAEko Garapenerako GKEekin, bai beste espazioekin duten inplikazioan. Beherakada horretarako ulerbidea ematen duten elementuen artean, ohartu gara 25 urte honetan gizarte-eraldaketa handia gertatu dela: indibidualizazioa, despolitizazioa eta bizi-prekarietatea, gizarte osoari eragin diona, baina are gordinagoa izan da gazteen artean. Garapenerako GKEei dagokienez, profesionalizatu egin dira, burokratizatu eta teknifikatu; aldi berean, baina, lan hori despolitizatu egin da neurri batean, eta horrek eragina

du jendarteko parte-hartzea sustatzen duten espazio eta prozesuak bultzatzeko orduan.

**GOMENDIOA:** jardunaldiak gazteekin geroko parte-hartzea sustatuko duen esparru bat jendarteratzeko baliatzea, Euskadin eta askotariko arloetan zein bitartekoekin jendartean parte hartzeko dauden askotariko aukerak ezagutzera emanaz, euskal elkarten errealitateari buruzko dokumentuak ontzearen bidez. Aurreko prestakuntza-prozesuei buruz eta kontuan hartuz helarazten diren edukiei eta moduei buruz gabeziak detektatu direla, gomendatzen da bizipen motako metodologiak ezartzea, talde txikitik lan egitea lehenetsiz, emozio, jarrera eta kultura arteko gaitasunen garapenean oinarrituz, parte-hartzaileen arteko elkartrukea eta elkarriketa segurtatzeko. Metodologia hori koloniala ez den ikuspegi bat duten elementu teorikoekin eta parte-hartzea aldaketarako gizarte estrategia dela identifikatzeko balio duten beste batzuekin uztar daiteke, gizarte aldatzeko estrategia gisa; horretarako, gaien dibertsitatean oinarrituz (feminismoa, giza eskubideak, kulturartekotasuna, etab.), ekintzara zirikatzeko duten tresnak eta bitartekoak aurkeztuko dira (elkartegintza, arteak, kirola, kultura, literatura, ikus-entzunezkoak, etab.).

- Tokiko Garapenerako GKEen eta EAeko Garapenerako GKEen parte-hartzea areagotzeko begira.

**GOMENDIOA:** ekintzarako protokoloak ezartzea gomendatzen da. Zehazkiago, protokolo horiek balio behar dute: a) gazteen esperientziei segida emateko eta tokiko Garapenerako GKEei zuzentzeko; b) haien segurtasuna arriskupean den egoeretan (jazarpena, erasoak, lapurretak, etab.) gazteei babesa emateko.

- Programak parte-hartzearen aldetik eta kultura arteko sentsibilizazioaren aldetik egiten duen ekarpena baloratzeko eta aldizkako hobekuntza-elementuak emateko.

**GOMENDIOA:** programan parte hartzen duten alde guztien (gazteen, tokiko Garapenerako GKEen, EAeko Garapenerako GKEen, Hautaketa Batzordearen eta abarren) iritzia ezagutzeko tresnak prestatzea, profilei buruz bildutako datuak aztertzeaz gain, urteko edo biurteko sistematizazio eta ebaluazio txosten bat ondu ahal izateko.

- Ebaluazioak azaleratu duen gai adierazgarrietako bat da komunitateetan integratu eta inplikatze orduan eragin handiagoa duela gazte bakoitzaren jarrerak, tokiko kulturaren ezagutzak (mundu ikuskera, tradizioak, etab.) baino.

**GOMENDIOA:** parte-hartzaileei jarrera aldetiko eta pertsona arteko bitartekoak ematea, eguneroko bizitza kudeatzeko askotariko moduei egokitzen lagun diezaien, eta tokiko gizarte eta ekonomia zein historia testuinguruaren berri (kulturatik bazter) azaltzea.

- Bukatzeko, ebaluazioak beste dema bat jarri dio programari: kultura arteko elkartrukean oinarritutako norabide biko prozesuak bultzatzea, ez bakarrik Euskadiko gazteen esperientzia sustatzeko, baizik eta Hegoaldeko gazteak Euskadira etor daitezen ere.